

Nafarroan Euskararen Lege berri baterako proposamenak

2018 Ekainak

■ AURKIBIDEA

1. EUSKARA NAFARROAN	3
2. EUSKARAREN DEKRETUA ETA EUSKARA LEGEA	4
3. EUSKARA ADMINISTRAZIOAN (herritarron arreta)	6
4. HEZKUNTZA	8
5. EUSKARA LAN MUNDUAN	11
6. KOMUNIKABIDEAK	14
7. KULTURA, AISIA ETA KIROLA	15
8. ONDORIOAK	16

1. EUSKARA NAFARROAN

Euskara nafar askorentzat berezko hizkuntza da eta beste askok, ama-hizkuntza ez duten arren, bizitza garatzeko aukeratu duten hizkuntza da. Ondare kulturala izateaz gain, ELAk Nafarroan euskaraz bizitzeko hautua egin duten hiritarren eskubideak aldarrikatu nahi ditu, bere bizitzako alor guztiak euskaraz ere garatzeko eskubidea, hain zuzen.

Horrez gain, euskarak komunitate bateko kide egiten gaitu, euskaldunon komunitatearenak.

Nortasunak lausotzen ari diren garai honetan, nortasun kolektiboak eraikitzea ezinbestekoa da elkartasunean oinarritutako gizarte eraldaketak eragin nahi badira. Horregatik, ELArentzat euskara sustatzeak komunitate izaera indartzea dakar eta horrek elkartasunerako aukerak handitu egiten ditu. Euskara minorizatutako hizkuntza den neurrian, gizartean minorizaturiko beste hainbat kolektiborekin elkartasun sareak sortzeko hizkuntza egokia da, Bidasoan gora, korrontearen kontra doazen izokinen arteko integrazio tresna izan daiteke euskara etorkinentzat, feministentzat, pobrezian bizi direnentzat edo lantokietan prekarietatea pairatzen dutenentzat.

Euskara nafar guztion ondarea da, euskaldun izan zein ez. Guztion ondare delarik, guztion eskura behar du, euskara erabiltzeko eskubidea orokorki onartua behar du, eta inork ez dio bere erabilerari mugarik jarri behar, gazteleraren erabilerari mugarik jartzen ez zaion era berean.

Euskara, Nafarroako eta Euskal Herriko jatorrizko hizkuntza da. Hemen hitz egiten diren hizkuntzetatik, Euskara da beste inondik etorri ez den hizkuntza bakarra. Euskara da beste inon hitz egiten ez den hizkuntza bakarra. Gurea da beraz, bere biziraupena bermatzeko ardura.

Ardura horretaz beste egiten badugu, euskara desagertuko da, Nafarroan bereziki, berton ordezkapen prozesua oso aurreratuta baitago, hizkuntza gutxitu egoerara ekarri duten hizkuntza politika uniformizatzaileen ezarpenaren ondorioz.

Gaur egun, ezberdintasun eza oso nabaria da, eta eguneroko bizimoduan oztopo gaindiezinak aurkitzen ditugu euskara erabili nahi dugunean, baita eremu euskaldunean ere sarri.

Aldiz, gazteleraren erabilera bermatuta dago eremu eta arlo guztietan, izan publiko ala pribatu.

Zein da ELAren helburua? Eskubideak eta sustapena

Aipatutako hizkuntz politiken ondorioz, nafar euskaldunek oso mugatuta daukate Euskara erabiltzeko eskubidea. Horregatik, premiazkoa da neurriak hartzea, euskara erabili nahi dutenek horretarako aukera izan dezaten.

Euskararen normalizazioa da euskara normaltasunez, naturaltasunez eta oztoporik gabe erabili ahal izatea Nafarroa osoan eguneroko bizitzan. Gaztelera erabiltzen den bezala. Inposaketarik gabe, baina mugarik gabe. Hala, euskarak erakundeen sustapena eta babesa beharko ditu ezinbestean, hizkuntzazaletasun militanteak ezinbestekoa izateari uzten dion arte, bederen.

Nafarroan elkarren ondoan bizi gara pertsona elebakarrak (gaztelaniadunak, eta euskaldun bakanak), elebidunak (euskaraz eta gazteleraz) eta eleanitzak (etorkinak batez ere). Ezin da marra bat eraiki gaztelaniadun eta euskaldunen artean, ez garelako bi komunitate ezberdinetako herritarrak: gero eta nafar gehiago, aldi berean, bietan

daude (elebidunak direlako). Beraz, ez luke egon behar inolako talkarik bi horien hizkuntz-taldeen artean.

Hizkuntza eskubideak pertsona guztientzako dira, herritar diren heinean, eta ez hiztun talde batekoak edo bietakoak izateagatik. Edozein eskubide, eskubide izango bada, unibertsala behar du.

Beraz, ezin da Nafarroa eremutan zatitu, zatiketa eskubide berdintasunaren aurka baitoa (egun bizilekuaren arabera aitortzen dira). *Euskarak ofiziala behar du Nafarroa osoan*, nafar guztien eskubideak bermatu daitezten. Era berean, inori ez litzaioke bururatu gaizteleradunei hizkuntz eskubideak ukatzea eremu euskaldunean. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da lehen bai lehen *Euskararen Legea* aldatzea eta bere edukiak berraztertzea.

Ofizialtasunak hainbat betebeharrak ekarriko lieke erakundeei (gobernua, udalak, mankomunitateak), egun baino handiagoak, bistan da. Euskara erabiltzeko eskubidea Nafarroa osora zabalduko balitz, hori bideragarri egiteko baliabideak jarri beharko lirateke, eta Nafar Gobernuak beharko luke bermea.

Ezagutza eta erabilera mailak oso ezberdinak izanik Nafarroako alde batetik bestera, Euskararen erabilera bermatzeko baliabideak errealitate horietara egokitu beharko dira ezinbestean. Baliabideak eta erritmoak egokitze horretan, aintzat hartu beharra dago herrien autonomia, ezin baitira baliabide berberak eskaini udal guztietan.

Euskararen erabilera bermatzeko moduak, *udal autonomia* (herrika eta eskualdeka) aintzat hartuz zehaztu beharra dago. Alabaina, udal guztiek bete beharreko jardunbide amankomunak ere ezarri beharko dira, eta horiek oinarri, herri bakoitzaren errealitate soziolinguistikoari ondoen egokitzen zaizkion ekintzak garatu.

Gutxienez, Nafarroa osoan, tokian tokiko taldeek antolatzen dituzten euskararen aldeko ekimenek udalaren babesa jaso beharko lukete.

Edonola ere, nafar guztien eskubide demokratikoa delarik, lurralde osora hedarazi eta herritar guztiei helarazi beharra dago. Hortaz, jasotzen diren eskariei erantzun behar zaie, indartu, biderkatu eta sustatu. Oso garrantzitsua da hau, eta herri-administrazioen derrigorrezko ekimen bihurtu behar da. Hartzen diren neurriak eraginkorrak izan behar dute.

Euskara aukera gisa ikusarazi beharra dago: euskaraz ikasteak, nafar askorentzat, berton izan arren ezezaguna den errealitate baterako sarbidea ematen du. Euskara ezinbestekoa da Nafarroa ondo ezagutzeko, eta munduaren ikuskera osagarri bat ematen du- Euskara ikasteak ez du beste hizkuntza baten ikasketa oztopatzen, mentalitate elebaker itxi batzuek sinestarazi nahi diguten bezala. Euskara mehatxu edo arrisku gisa ikusarazi nahi duten estrategia antidemokratikoei, bazterketa eta guztion eskubideen murrizketa besterik ez dakarte.

Ofizialtasuna eta tokian tokiko errealitateari egokitutako sustapena, lotsa barik Nafarroa osora hedatua baina, Euskara erabiltzeko eskubidea bermatzeko gakoak dira.

2. EUSKARAREN DEKRETUA ETA EUSKARA LEGEA

Euskara: ateak ireki, aukerak probestu

ELAk uste du berezko hizkuntzen erabilera arautzen duen 2017ko Foru Dekretua (DF 103/2017) eskasa den arren, euskararen normalkuntzan aurrera pausu garrantzitsua dela. Dekretuari baieztatzeko bozka eman dion sindikatu bakarra gara, Nafarroak hizkuntza-aren normalkuntzan aurrera pausuak emateko dituen aukera eskasak probesteko bereziki.

Lau alderdiko Nafarroako Gobernuak adostu eta aurkezturiko foru-dekretuari baietza eman dio ELAk bakarrean, eta hori apustu bat izan da; izan ere, diktadorea hil zenetik oraingo hau hirugarren aukera da, euskaldunok gure administrazioaren arreta gure hizkuntzan jasotzeko eskubidearen alde agertzeko. Lehenagoko bi aukerak ez ziren iritsi oraingoa iritsi den mailaraino, eta gainera oso iraupen gutxikoak izan ziren.

Lehendabizikoa Alliren dekretuarena izan zen (70/1994 FD), baina handik 4 hilabetera beste dekretu murriztaileago batez ordeztara beharturik egon zen UPNren aginduz; gero, 1995eko hiru alderdiko hobekuntza-plana etorri zen, baina 1996an desegin zen, eta harez geroztik duela bi urte arte UPN izan da boterean, eta hor iraunarazi duen koalizio handiak (PSNerekin batera) urte anitzeko atzerakada ekarri digu.

Hizkuntza-eskubideak oso luzaroan egon dira bazterrean utzita: bertako hizkuntzak erabiltzeko eskubidea, gero eta erkidego anitzago batean hiltune erabilera hori bermatzeko eskubidea, eta Europako Kontseiluaren 1992ko uztailaren 7ko Eskualdeetako eta Ereku Urriko Europako Gutunean finkaturiko helburua: “Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzak babestea eta sustatzea, Europako kultura-ondarearen alderdi hori arriskuan baitago” euskararentzat ere lortzeko eskubidea.

Orain, ordea, abagunea dugu, eta ezin dugu aukera hori galdu

Jakin badakigu botila erdi bete izateraino denbora beharko dugula, baina tantarik tanta, 1986ko Euskararen Legearen kanilak uzten duen neurrian betetzen joanen gara. ELAren iritziz ezinbestekoa da lege hori aldatzea; baina, horretarako behar den adostasuna lortzen ez den artean, dekretua aitzinamendua da, urrats nabaria, zeren lehen aipaturiko Europako Gutunean azpimarratzen denez “hizkuntza bat agintari publikoekiko harremanetatik kanpo uztea, de facto hizkuntza-izaera ukatzea da, hizkuntza komunikabide bat baita, eta ezin da mugatu harreman pribatuetara. Gainera, politikara, zuzenbidera edo administrazioa irizpiderik ez duen hizkuntza batek bere terminologia-ondarea galduko du denboraren poderioz, eta azkenean ez du gaitasunik izanen gizarte-bizitzaren alderdiak izendatzeko”.

Aukera galduak ugariak izan dira, eta iraganean egindako oker eta hutsetatik badugu denok zer ikasi, autokritika egin ondoren. Sekula berretsi ez den 1982ko LORAF-NA (Foruaren Hobekuntza) ez zen jaso Nafarroako Parlamentuaren 1980ko ebazpena, non honako hau erraten zen: “Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizialak izanen dira. Printzipio hori Nafarroako Foru Eraentza Berrezartze eta Hobetzeari buruzko Oinarrietan txertatuko da, eta baita Foru Parlamentuaren erabateko eskumena ere, lege baten bidez erregulatuko”. Hobekuntzaren 9 artikulua, hala ere, bide eman zien Euskararen Legearen egileei zonifikazioa ezartzeko. Ereku mistoa Erribera osora zabaltzeko 1994ko bozketan ezetzaren ingurura bildu zirenak “deus ez” nahi zutenak eta “dena orain” nahi zutenak izan ziren.

Urte horietan, hala ere, aukera baliatuak ere izan dira, denetan nabariena Iruñerriko Mankomunitatearen 1998ko Euskararen Ordenantza da. Horren bidez era berean arautu ziren hizkuntza-eskubideak, errolda-udalerriari begiratu gabe. Ildo horretatik garatu behar da oraingo dekretua, zeina parlamentuko zehar-gehiengo batez adostua izan den, eta hori goraipatzeko modukoa da. Eta gehiengo hori ez bada heldu parlamentarien bi herenak izateraino, PSNren tema antieuskalduntasunagatik izan da.

Dekretuak ekintza positibo eta proaktibo bat ezarri du are ereku ez-euskaldunean ere. Zerbitzu zentralak ez dira egonen kokapen-eremuaren eraginpean. Gainera, sindikatuen alegazio anitz jaso dira, eta oraingo funtzionarioen eskuraturiko eskubideak bermatzearen aldekoa da.

Indar sozialen eta polikoen artean dagoen korrelazioa ikusita, biderik zuzenena, oraingoz, eskubideen onarpena lortzea da, eta arian-arian hedatuz joatea. Ez dugu ahortzi behar oraintsu arte izan dugun Erregimenak hizkuntza bat ezarri duela, eta besteak beste; eta hemendik goiti euskaraz ez dakien gehiengoak ordezkatzeko asmoa duela, gehiengoari komeni ez zaion arrisku baten moduan erakutsiz, aukera baten moduan erakutsi beharrean.

3. EUSKARA ADMINISTRAZIOAN (herritarren arreta)

Legegintzaldi honen hasieran mahai-gainean zen Euskararen lege berri baten beharra. Dirudienek dekretu bat izanen da aro honetan erdietsi dezakegun lorpen bakarra. Horrela ulertu behar da ELA sindikatuak dekretuari eman zion baietza kritikoa.

Koofizialtasuna

Koofizialtasunak herritarren eskubideak aitortzea dakar, herritarrek administrazioarekiko, botere publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidearen aitortza.

Administrazioaren zeregina

Gauzak honela, lege berri batekin edota aipatu dekretu horren bitartez zein da euskararen alorrean administrazioaren eginbehar nagusietako bat, nagusia ez bada?

- Administrazioa euskaraz gaitu, azken batean bere burua euskaraz gaitu.

Administrazioak herritarrek euskaraz hartzea bermatu behar du.

Herritar multzo esanguratsu batek euskaraz nahi ditu hartu-emanak eduki administrazioarekin.

Hona lehenbiziko premisa, herritar multzo horrek, herritar horrek ba al du hori galdetzeko eskubidea? Bai, herritarren eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak eta hartuko dituen neurriak hori bermatze aldera hartu behar ditu, eskubideek ez dute talkarik egiten.

Inor esan dezake, talka hori errealitate bat dela, eta beste era batera formulaturik, izan dira badira hainbat eragile ustezko talka hori errealitate bilakatu nahi dutenak. Aser-tibitatea dugu afera honi irtenbidea emateko gakoetako bat. Administrazioak lidergoa hartu behar eta era berean lidergo hori asertibitatez blaitu. Arestian esan bezala, herritar multzo esanguratsu batek euskaraz bizi nahi, eskubidea hori ere badute. Gauzak honela eskubide horren kontra egon daitezkeen herritarrek konbentzitzea da gakoetako bat, asertiboa izan, zurea defendatu eta aldi berean kontra dena edo ustez ados ez den hori limurtu, zuk defendatzen duzun hori berari ez dakarkiola kalterik ikustarazi eta zuri aldiz horrek dakarkizula.

Eskubideen ustezko talka

Gure ordenamenduan, egon badaude hainbat adibide eskubideen ustezko talkaren teoria ezeztatzen dutenak, horien artean esanguratsuenak Iruñerriko Mankomunitatearen adibidea dugu. Mankomunitate honek hiru eremu linguistikoen herriak biltzen ditu eta herritarrek aitortuak dituzte beren hizkuntza eskubideak. Puntu honetan OPE-LEP delakoaren afera ageri zaigu, datozen eskaintzek hau guzti hau bildu beharko lukete.

Administrazioaren lidergoa

Jakin badakigu ez dela erronka makala. Hori guzti hori aitzina eramateko ingurumari legal egokia behar da. Lege edota dekretu berriak, gutxienez, aipatu adibideak (Iruñerriko Mankomunitatea) bermatzen duena bildu beharko luke. Hori guztia aurrera eramateko ezinbesteko da Administrazioaren lidergoa. Ikerketa eta diagnosien garaiari ekimeneen aroa gailendu behar zaio. Erakundeen arteko elkarlana eta gizarte ekimena uztartzea inoiz baino premiazkoagoa zaigu.

Erakundeen ekimena eta herritarren ekimena. Elkarlana

Ezaguna da euskararen alorrean betidanik herritarren ekimena berebiziko garrantzia izan duela. Administrazioak bere eskumenen barnean horien sustatzea bultzatu beharko luke. Eginkizun horretan ekintzak lehenesten ditugu.

Talde horien egoeraren inguruko azterketa egin baina haiekin elkarlanean arituz, hau da, inkesta edota diagnosia, informazio eta argibide horiek elkarlanaren bitartez erdietsi. Honetara ezkerro informazio aski eduki beharko genuke horien egoeraren inguruan eta horretan sakontzea elkarlanak, ekimenak ekarriko digu hori.

Adibide bat jartze aldera, azken bi hamarkadetan irakurle klubak ugaritu dira gure geografian, Euskara Zerbitzu bat duten eremuetan, talde horiek talaia egokiak dira eskualde batean euskalgintzaren egoera, ekimena, osasuna, neurtzeko, horiek oso termometro fidagarriak dira, ez bakarrak noski.. Irakurle klub horietan biltzen direnak normalizazioaren lehen lerroan dira, jakin badakigu aski artifiziale izan daitekeela, baina Tuteran, Tafallan edota Oibarren horrelako talde bana edukiko bagenu nabarmen urrituko zen azterketa, inkesta edo diagnosiak erdiesteko egindako ahalegina. Talde horiek ditugu eragile, hor bilduko lirateke euskalgintzan ari direnen testigantzak, egitasmoak, horiek dira lehen eskuko informazioa eskainiko digutenak, horiek gure komertzialak, gure sustatzaileak, gure ekintzaileak.

Euskara zerbitzuak, herritarrengandik hurbil

Arestian, Euskara zerbitzuak aipatu ditugu. Nafarroan, Udaletako eta Mankomunitateetako Euskara Zerbitzuak duela hiru hamarkada hasi ziren martxan jartzen. Zerbitzu hauek talaia egokiak dira administrazioan euskarak egin duen bidea aztertzeko tenorean. Talaia ez ezik zerbitzu hauek lehen mailako eragileak ditugu administrazioa euskaraz gaitzeko ahaleginean.

Alta, Nafarroako eskualde ugari zerbitzu horietatik kanpo da egun ere. Tokiko entitateek hartuko beharko lukete horiek garatzeko ardura, baina horiek finantziatzea zaila dela ikusirik, Administrazioak, hau da, Euskarabideak eman dezake zerbitzu hori, ez dira gutxi eremu ez-euskaldunean euskalgintzan ari diren taldeak, eta inoiz administrazioaren laguntza, aholkua jaso dute. Euskarabideak modu iraunkorrean erantzun beharko lieke talde horien beharrei, eta lan hori tokiko administrazioekin batera eginen balu askoz hobeki, horrek bailekarke etorkinean euskara zerbitzuen zabaltzea. Euskarabideak eskainiko lituzke udaleko edo mankomunitateko euskara zerbitzu batek herritarrei eskaintzen dien zerbitzua.

Hizkuntza paisaia

Hizkuntza paisaia aipatzerakoan errotulazioa eta seinaleak datozkigu burura. Gobernua ahalegindu da azken hamarkadetako gabeziak emendatzen. Beti ere, ez da aski izan.

Bestalde, Hizkuntza paisaia kontzeptua zabaltzea proposatzen dugu. Sarea ere hizkuntza paisaiatzat hartu beharko genuke. Gero eta erakunde, elkarte eta talde gehiago saiatzen ari da sarean duen presentzian euskararena aintzat hartzen. Administrazioak lagunduko beharko luke ekimen hori, eta lan eskerga dela ikusirik, orain arte egindako lana (Nafarroako Gobernuak eta tokiko administrazioek egindakoa) abiapuntu gisa hartu eta lehentasunak ezarri lan hori aitzina eramateko.

Boluntarismoa, bolondres lana

Jakin badakigu, orain arte agertu ditugun adibideetan boluntarismoa dela nagusi. Administrazioak aurrekontuaren murrizta aipatu du hainbat ekintzak aurrera ez eramateko arrazoitzat. Hori ezin da aitzakiatzat onartu, baina aipaturiko talde eta elkarte ho-

rien ekimena baliatu beharko genuke aitzina egiteko (aurrekontuen arrazoia oztopo bezala erabiltzen denean).

Boluntarismoarena ere administrazioan bertan saiatu daiteke, honetara ezkerro jakin beharko genuke egun zein lanpostu, zein langile gai den herritarrak euskaraz artatzeko, eta horien beharrak ezagutu eta laguntza eman zerbitzu hori euskaraz ere eman dezaten.

Sortzaileak versus kontsumitzaileak

Administrazioak garbi omen ditu zein diren bere helburuak. Esaterako irakurzaletasuna bultzatu nahi du. Xede horrekin kontsumitzaileak eta sortzaileak mimatu beharko lituzke eta duen aurrekontu apur horrekin ahalik eta biderik zuzenena hartu beharko luke horiengana iristeko, baina praktikak, hau da, praktika kapitalistak ez du bide hori errazten. Diru-laguntzak aski murrizturik heldu ohi dira sortzaile edota kontsumitzaileengana, hainbat bitartekarik aurrekontuaren zati esanguratsua eramaten baitu. Administrazioak eskuak lotuak omen ditu, baina izan badira bideak sortzaileengana eta kontsumitzaileengana ahalik eta modurik zuzenenean iristeko. Irakurzaletasuna bultzatu nahi badut, idazlea eta hori kontsumituko duen irakurlea lagundu behar dut, idazlearen lana duindu eta balizko irakurleari, balizko kontsumitzaileari produktu hori erdiesteko bideak erraztu. Gauzak honela, kanpainaren bat egiten bada, eta egin izan dira gure ustez egokiak diren kanpainak, esfortzurik handiena, esfortzu ekonomikoa barne, idazlea zein kontsumitzailea laguntzera bideratu beharko luke Administrazioak.

4. HEZKUNTZA

1. Diagnostika

- Indarrean dagoen legediaren arabera (Foru Hobekuntza eta Euskararen Legea), Nafarroako irakaskuntzan euskara ez da derrigorrezkoa, zonalde euskaldunean izan ezik. Alabaina, 2015eko aldaketaren ondorioz D eredua lurralde osoan eskaintzen da.

- Lanbide Heziketan eskaintza urria dago. 2016an Gobernuak matrikulazio orrietan euskaraz egiteko aukera jarri zuen, hizkuntza honetako eskaera kopurua jakiteko eta posiblea bazen aukeratutako ikasketak euskaraz emateko.


- Unibertsitatean euskara hutsean Magisteritza besterik ez dago. Beste ikasketetan badaude ikasgai batzuk euskaraz, baina oso eskaintza eskasa dago.

- Kontserbatorioa, arte eskola...erdaraz bakarrik daude.


- Unibertistatez kanpoko hezkuntzan 100.000 ikasle inguru dago Nafarroan. Hauen erdiak ez du batere harremanik euskararekin, G ereduan dagoelako. Taula honetan ikus daiteke ereduen arteko distribuzioa.

- Azken urteotan UPN, PP, eta PSN-ek erabakiak hartu zituzten euskara baztertzeko, ingeleseko sasi-murgiltze programa hezkuntza sisteman txertatuz. Gobernu berriak ez dio egoerari hobetzeko alternatibarik eman eta zegoenari jarraipena ematen ari zaio. Oso adierazgarri eta kezagarria da hezkuntza sistemaren sarrera den haur hezkuntzan gertatzen diren matrikulazio datuak: bertako hizkuntzetan oinarritutako ereduak izugarritzko jaitsiera pairatzen ari dira eta atzerriko hizkuntzan oinarritutako programak igoera nabarmena izaten ari dira. Etorkizunean egoera hau bai lehen hezkuntzan bai bigarreanean islatuko da. Honako grafikoetan azaldutakoa ikus daiteke:

**Ereduen bilakaera eta IIP-PAI Nafarroako Haur Hezkuntzan
2013-14 / 2017-18 LEGEZKO HIZKUNTZ EREDUAK:**



IIP-PAI HIZKUNTZ EREDUETAN:



- Hauek dira ikasturte honetako 3 urteko ikasleen matrikulazio datuak:

- 3.699 inskripzio ikastetxe publikoetan
- 2.401 itunpekoetan
- G-PAI (gazteleraz): 2.567
- D eredua: 1.575
- A-PAI (gaztelera euskararekin): 1.063
- D-PAI: 298
- G (gazteleraz): 251
- G-British: 187

- Irakasle euskaldunek: zerrenda bikoitzak, oposaketak bi hizkuntzetan, birziklapenik eza...jasan behar dituzte. D ereduko irakasleek zonalde ez-euskaldunean jazarpena pairatzen dute, baita A-ereduko irakasleek G ereduko ikastetxeetan.

2. Helburuak

- Euskara Nafarroa osoan ofiziala bihurtzen badugu, nafar ikasle guztiek euskara berea dela baloratu eta onartzeko beharrean egongo dira, beste erkidego elebidunetan bezala.

Gutxienez, euskararekin kontaktua izan beharko dute, hizkuntza ofiziala denaren logikan. Hau ez da bateragarria atzerriko hizkuntza bat behikularra bezala bultzatzea-rekin. Atzerriko hizkuntzak indartu behar dira, baina atzerriko hizkuntza bezala.

- Legea aldatu behar da euskara ofiziala izateko Nafarroa osoan. Beraz, gutxieneko euskararen ezagutza bermatu behar da. Horretarako gaurko A ereduak (euskara ikasgai) izan behar du minimoen aukera Nafarroa osoan, G ereduak desagertaraziz. Gauzak horrela, euskararen gutxieneko kontaktua eta ezagutza lortuko genuke ikasle guztientzat. Etorkizunean elebitasun efektiboa lortzeko bidearen lehen pausoa izango da.

- Hezkuntza sistemak, lehendabizi, ofizialak diren hizkuntzen ezagutza bermatu behar du, edukietan ahal den mailarik altuena lortzeko bidea emango duena, gizarte desoreka gainditzeko hezkuntza publikoak duen funtzioa bermatuz. IIP-PAI bezalako programak bertan behera utzi beharko lirarteke, atzerriko hizkuntzak ikasgai moduan indartuko direlarik.

- Lanbide Heziketan ziklo berriak eskaini euskeraz eta hauekin batera lanpostu egonkor berriak sortu.

- Unibertsitatean ikasketa eta ikasgai gehiago eskaini euskeraz dagoen eskaerari erantzun egokia emateko. Horrela Nafarroako ikasleek ez lukete EAera ikastera joan beharko eta hango ikasleak ere erakarriko lirarteke.

5. EUSKARA LAN MUNDUAN

a) Diagnostikoa:

Euskararen presentzia eta erabilera neurtzeko asmoz, adierazle bat hartu ditugu kontuan: hitzarmen kolektiboak, bai sektorekoak edo enpresakoak izan, euskarak tokirik daukan. Hau da, inolako erregulaziorik jasotzen duten.

1. Hitzarmenen lagin baten azterketa:

1.2. Erreferentziarik gabe:

a) Sektorialak:

Enseñanza Privada Concertada de Navarra, Metal, Reparación de Vehículos, Fontanería y Calefacción, Ostalaritza, Garbiketak, Comercio Alimentación, Comercio Textil...

b) Enpresetakoak:

Amma Navarra, Aspace, Fundación Argibide, Fundación Ilundain Haritz Berri, VW Navarra, TRW...

1.3. Euskararekiko erreferentzia daukaten hitzarmen batzuk:

a) Residencia de ancianos Andra Mari de Lesaka (2017-19)

“Vacantes, nuevos puestos y contratos de larga duración:

*Se computará como mérito el tiempo de servicios prestados en la Empresa, los servicios prestados en puestos de trabajo de idénticas características y el **conocimiento del euskara**”.*

b) Convenio Ikastolas de Navarra

*“Las Ikastolas planificarán, promoverán y, en su caso, primarán la obtención del **título de euskara**, reconocido oficialmente (EGA, etc.)”.*

“En relación al plan especial para la obtención del título académico de Magisterio, las Ikastolas concederán obligatoriamente las licencias necesarias para asistencia a las clases, sin detrimento alguno en las retribuciones, siempre por cuenta del trabajador o trabajadora los gastos de matrícula, viajes y estancias, si los hubiere”.

c) Comercio del Metal

*“Con el fin de conseguir la mayor elevación cultural y profesional de los trabajadores, las empresas abonarán a todos aquellos trabajadores que lo soliciten los gastos de matrícula en la Escuela de Artes Aplicados y Oficios Artísticos y en la Escuela de Idiomas para **aprendizaje del Euskera** o en cualquier otro centro similar de la localidad donde realicen la prestación de trabajo, siempre que dichas enseñanzas sean tomadas fuera de las horas de trabajo y con normal aprovechamiento en los estudios”.*

d) Artes Gráficas

*“Las empresas abonarán los derechos de matrícula del **curso de euskera** en un centro público o reconocido por AEK., siempre y cuando el trabajador o trabajadora, a la finalización del curso, presente a la empresa el justificante o certificado de aptitud (aprobado) del curso correspondiente.*

Dichos cursos lo serán siempre fuera de horas de trabajo”.

e) KYB Suspensions

*“La Empresa se compromete a rotular en bilingüe (**euskera** y castellano) todos los nuevos paneles y adecuar los existentes”.*

f) KYB Stering

*“La Empresa se compromete, durante la vigencia del convenio y en la medida de lo posible, a que los rótulos existentes en la fábrica figuren expresados en castellano y **euskera**”.*

g) Berrikilan

“Se concederán permisos retributivos hasta un máximo de 55 horas al año siempre y cuando se cumplan los requisitos siguientes:

*Que el contenido de los cursos esté directamente relacionado con el puesto de trabajo, incluido el **euskera**”.*

2. Negoziazio Kolektiboaren egoera

Lan munduan lorpenak izatea indar korrelazioarekin lotuta dago. Gaur egun, zorit-arrez, eta federazioetako arduradunen esperientziaren arabera, euskarak ez du behar lukeen lehentasunarik negoziazio kolektiboan.

Ikus daitekeenez, enpresa pribatuetako negoziazio kolektiboan euskarak presentzia txikia du:

- 11 sektore hitzarmen nagusietatik bietan erregulatzen edo aipatzen da euskara.
- Enpresa handienen hitzarmenetan ez dago inolako erregulaziorik edo planik.
- 5 enpresa aurkitu dira euskarari nolabaiteko babesa eskaintzen diotenak.

Errealitate hau irauli behar dugu, ahalik eta lasterren. Negoziazio kolektiboan ere, euskarak bere lekua eduki behar du.

b) Helburuak

1. Negoziatio kolektibo bitartez Euskara Planak edo klausulak sustatzea hitzarmen kolektiboetan

Bai sektoreetako hitzarmenetan (Administrazioa barne) eta bai enpresa mailako hitzarmen eta itunetan Euskara Planak edo klausulak sustatu. Helburu neurgarria da.

Enpresetan euskara planak sustatzea gure jarduera sindikalaren parte da, eta hitzarmenei ematen zaien tratamendua eman behar zaie.

Sindikatuaren presioa ezinbestekoa da lantokietan euskara sustatzeko. Horretarako diskurtsoa landu, neurriak proposatu eta ekintza eta klausula zehatzetan mamitu behar da. Hau da, euskara klausulak edo planak ezin dira edukirik gabeko akordio bat izan, marketing hutsa edo intentzio deklarazioa bat.

Horretarako prestakuntza eta diskurtsoa landu behar dira, diagnostikoa egin sektoreraren edo enpresaren arabera, eta horren arabera neurriak proposatu.

Neurri zehatz posibleak:

- Kontrataziorako, promoziorako eta barne antolakuntzarako euskara baloratzea.
- Formakuntza eta trebakuntza sustatu.
- Enpresaren komunikazioa eta paisaia linguistikoa elebiduna.
- ...

2. Kontratuen legean Administrazioaren esleipenetan enpresek euskara planak izatea baloratzea

Egiten ari den kontratu publikoen lege berrian, esleipenetan enpresek euskara planak izatea baloratu dadila eskatzea.

Honekin lotuta, langile publikoei exijitzen zaizkien euskara gaitasun berdina exijitzea administrazioak azpikontrataturiko zerbitzuetan. Hau da, euskara bermatua zerbitzuaren arabera izatea eta ez kudeaketa publikoa edo azpikontratatua den arabera, edo momentuko langileen arabera.

Enpresetan euskararen aldeko neurri eraginkorrak sustatzeko bidea jorratzen ari gara.

BALIZKO EREDU BAT

Euskararen normalizazioaren aldeko plan eta neurriak martxan jartzea da helburua. Hemen aipatzen diren ekimenek bide bat erakutsi ahal dute, gero epeak eta tarteko helburuak zehazteko, tokian tokiko egoera kontuan hartuta.

– Zeintzuk lirateke plan honen helburuak?

1. Alde batetik, enpresaren lan eta komunikazio hizkuntza euskara normalizatzea, azken batean, enpresaren funtzionamendua euskalduntzea, neurri batean behintzat. Horretarako, euskalduntze prozesu planifikatu eta arautu bat jarri beharko da martxan, beti ere enpresan dugun diagnostikoa kontutan hartuta, eta dugun indar-erlazioaren arabera.

2. Langileak euskaraz lan egiteko eskubidearen alde ahaldundzea, askotan ez gare-lako kontziente hizkuntza eskubideen jabe garenik ere.

3. Euskararen gaia ekintza sindikalean txertatzea. Hizkuntza eskubideak beste eskubideak bezala defendatzeko ekintza sindikala izango da eskura dugun tresna.

Langileok, diagnosia egin eta lehentasunak identifikatzeko eredua/prozedura:

- Bai Euskarari elkarteak egindakoa AUTO-DIAGNOSI eredua baliatuko dugu langileon ikuspegitik, enpresaren diagnosia egiteko (subjektiboa edo azkarra):

- WEBGUNEa: <http://baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa>.

- Diagnosi subjektiboa egiteko aldagaiak:

- Hizkuntza gaitasuna: langile kopurua, kanpo harremanetan euskaraz jarduteko gai diren langile/ kideak.

- Erakundearen irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia: errotuluak eta plakak, informazio orriak, segurtasunezko errotuluak.

- Erakundearen kanpo harremanak:

- * Bezeroekiko idatzizko harremanak: fakturak edo ordainagiriak, bezeroei bidalitako gutunak, bezeroei bidalitako posta elektronikoak...

- * Bezeroekiko ahozko harremanak: telefono harreran lehen hizkuntza, aurrez aurreko harreran hasierako hizkuntza...

- * Publizitatea eta promozioa: webgunea, sare sozialak, posta bidezko publizitate edo promoziorako euskarriak (diptikoak, mailing-ak...).

Hauek dira, besteak beste, Nafarroako negozioazio kolektiboan txertatu ditzakegun eginkizun batzuk. Badago neurri zehatzak hartzeko adibideak, eta horiek gauzatzeko bidean jarri behar dugu, beste sindikatuetik aliantzak baliatuz.

6. KOMUNIKABIDEAK

Abiapuntua argi daukagu: *“Informazioa norberaren hizkuntzan jasotzeko eskubidea bermatu behar da”*. Horrela diote Europako legediak eta hizkuntz gutxituen aldeko arauak.

Gaur egun Nafarroan ez dago euskaraz behar dugun informazio osoa jasotzeko aukerarik. Ez dago euskarazko telebista publikorik, ez irratirik ez Nafarroa osoarako argitalpenik.

Hala ere, komunikabide publiko zein pribatu berriak sortu baino lehen, egun dauzkagunak aprobetxatu behar dira, bideragarritasun ekonomikoa eta bertako langileen baldintzak ahalik eta duinen izateko asmoarekin.

Kontuan hartu behar da euskarazko komunikabideak (publikoak ez badira) enpresa edo kooperatibak direla, eta epe luzerako bideragarritasun ekonomikoa behar dute, ezinbestean. Dirulaguntzetatik haratago, ahalik eta autofinantzaziorik handiena lortu behar dute. Bestela, ez dute iraungo. Mito bat deseraiki behar da: EAEko euskarazko hedabideen autofinantzazioa oso altua da: batz bestekoa, Jaurlaritzatik jasotzen duten dirulaguntza %5etik beherakoa da.

Zailtasunak zailtasun, eta komunikazioaren merkatuan sarturik, Nafarroako Administrazioen sustapena derrigorrezkoa da, behintzat euskarazko informazioa denon eskura dagoela ziurtatzeko (gastelaniaz dagoen moduan).

Gauzak horrela, lehen pausoa askoz hurbilago dago: orain dagoena sustatu behar da. Hau da, euskarazko **telebista** sendo bat dagoenez (ETB), Nafarroa osoan ikusteko eskubidea bermatu behar da (euskaraz dauden ETBko kanal guztiak barne). Euskadi Irratiarekin bide berbera jorratu daiteke.

Irratigintza: euskarazko sare xume baina egonkor bat dago (Euskalerria Irratitik hasita), nahiz eta eskualde askotan eskaintzarik ez izan. Administrazio publikoak irratitxiki hauen funtzionamendua sustatu behar du, eta ez bakarrik dirulaguntzaren bidetik. Litzentziak banatzerakoan kuotak jarri behar dira, eta publizitate instituzionalaren bana-

keta arautu behar da euskarazko komunikabideen biziraupena ziurtatzeko, besteak beste.

Paperezko zein interneteko argitalpenak:

Irratigintzan egiten den antzeko azterketa. Egunkari bat dago, Berria, astean behin Nafarroako gehigarria argitaratzen duena. Berez, ez dago Nafarroa osorako euskarazko argitalpenik (bere garaian Nabarra zegoen), eskualde batzuetan, aldiz, bai. Euskararen erabilera sustatu beharko da, publizitate instituzionalaren banaketaren bidez, adibidez (argitalpen elebidunetan ere, euskara erabiltzeko beharra ezarri, neurri batean).

Egia da euskara sustatzeko euskarrik eraginkorrenak komunikabide elebakarrak direla, baina elebizko argitalpenek paper garrantzitsua betetzen dute Nafarroan: etxe elebakar askotan euskara sartzen dute, bere presentzia bermatzen dute, Nafarroako hizkuntza-paisaia aberastuz.

Egun, komunikatzeko orduan, gero eta gehiago dira **Internet** erabiltzen duten medioak.

Etorkizunean testua, irudia eta audioa batera helduko zaizkigu gure hargailua edozein dela ere. Hori dela eta, eta ikusirik tokian-tokiko zein lurralde osorako komunikabideak ahalgin berezia ari direla egiten komunikatzeko plataforma horiek ahalik eta osatuenak izan daitezen, Administrazioak komunikabide horien arteko sinergiak lagundu eta bultzatu behar ditu. Egun, jada, Nafarroako hainbat irati eta aldizkari bide hori ari dira saiatzeko, administrazioak ekimen horiek lagundu behar ditu horien hedapena ziurtatze aldera.

Horren aurkako argudioak ezagunak dira: euskara bultzatzeko kostua handituko litzateke. Hala ere, euskarak sortzen duen balio ekonomikoa kontuan hartu behar dugu. Eusko Jaurlaritzak eta Hekimen elkartearen ikerketen arabera, diru-laguntzetan jasotzen den euro bakoitzeko, 9,22 euro itzultzen zaizkio gizarteari. Are gehiago, EAEko Barne Produktu Gordinaren %4,1 euskarari buruzko enpresei dagokie (turismoaren ekarpena, adibidez, %5,8koa da)*. Azken finean, *euskarazko hedabideak bultzatzea ez da gastu bat, baizik eta inbertsio soziala*.

*Datuak: Hekimen (Euskal hedabideen elkarte). 2015eko urriko txostena.

7. KULTURA, AISIA ETA KIROLA

Kultura, aisia eta kiroleko neurri batzuk sindikalgintzatik aipa daitezke, nahiz eta beste esparruetako ardurak izan. Dena den, Euskara Lege berri baten atarian, atal hauek ezin dira bazterrean geratu, oso garrantzitsuak direlako Nafarroako errealitate linguistikoa zein den ezagutzeko eta nola alda dezakegu eskubide guztiak errespetatuak izan daitezen.

- Modu orokorrean, euskarazko kultura ez da bakarrik Euskarabidean ala Hezkuntza Politikan kudeatu behar: kultura denez, Kultura Departamentuan ere kudeatu behar da (orain arte, gaztelaniazko kultur departamentua da). Euskara modu transbersalean landu behar da, ez da ezer periferikoa.

- Beste adibideen artean, hor dago zinema aretoen errealitatea: nola indartu euskarazko bertsioak zinemetan? Edo nola indartu euskarazko antzerkiaren eskaintza?

- Aisialdian eta kirolan: hizkuntza paisaia zaindu behar da, benetako elebitasuna bermatzeko (herri lasterketetan, beste kiroleko txapelketetan eta abar)... Gai hau federazioekin landu behar da, eta plan integral bat abian jarri. Euskararen presentzia hobetzeko aukerak ugari daude: haurrentzako kanpalekuan, pizsina pribatuarekin zerbitu egin daiteke...

- Azken finean, euskararen arnasmuneak sortzea oso garrantzitsua da, eta kirol munduan nola sortu landu beharrean gaude... Hizkuntza-eskubideak bermatu behar dira araututako esparruetan (lan munduan, administrazioan...) baina baita aisialdirako ataletan.

Euskaraz ere ongi pasatzen dugu!

8. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Hainbat esparru aztertu ondoren, **Euskararen Legea aldatu behar** dela ondorioztatzen dugu, ahalik eta epe motzenera.

Ofizialtasunak hainbat betebeharrak ekarriko lieke erakundeei (Gobernua, Udalak, Mankomunitateak), egun baino handiagoak, bistan da. Euskara erabiltzeko eskubidea Nafarroa osora zabalduko balitz, hori bideragarri egiteko baliabideak jarri beharko lirarteke, eta Nafarroako Gobernuak bermatu beharko luke.

Ezagutza eta erabilera mailak oso ezberdinak izanik Nafarroako alde batetik bestera, euskararen erabilera bermatzeko baliabideak errealitate horietara egokitu beharko dira ezinbestean. Baliabideak eta erritmoak egokitze horretan, aintzat hartu beharra dago herrien autonomia, ezin baitira baliabide berberak eskaini (ala aldarrikatu) udal guztietan. Gutxienez, Nafarroa osoan, tokian tokiko taldeek antolatzen dituzten euskararen aldeko ekimenek Udalen babesa jaso beharko lukete.

Azken finean, **euskaraz bizitzeko aukera** ahalbidetu behar da.

ADMINISTRAZIOA

ELAk uste du berezko hizkuntzen erabilera arautzen duen 2017ko Foru Dekretua (DF 103/2017) eskasa den arren, euskararen normalkuntzan aurrerapausua izan dela. Dekretuari baieztatzeko bozka eman dion sindikatu bakarra gara, Nafarroak hizkuntzaren normalkuntzan aurrerapausuak emateko dituen aukera eskasak probesteko bederen.

Bide horretan sakonduz, ezinbestekoa da egungo Euskararen Legea aldatzea.

Gauzak honela, lege berri batekin edota aipatu dekretu horren bitartez, zein da euskararen alorrean administrazioaren eginbehar nagusietako bat, nagusia ez bada? **Administrazioa euskaraz gaitu**, azken batean bere burua euskaraz gaitu: herritarrak euskaraz hartzea bermatu behar du.

Edozein kasutan, **koofizialtasuna** ezinbestekoa da. Horrek ez luke inolako eskubideen talka ekarriko, indarrean dauden arau askok frogatu duten bezala (Iruñerriko Mankomunitatearen euskara arautegia, besteak beste).

Administrazioaren lidergoa behar da. Lege berriak edota dekretu berriak gutxienez aipatu adibideak **(Iruñerriko Mankomunitatea euskara arautegia eredu bezala hartuz)** bermatzen duena bildu beharko luke. Erakundeen arteko elkarlana eta gizarte ekimena uztartzea inoiz baino premiazkoagoa zaigu. Horretarako, tokian tokiko Euskara Zerbitzuak oso balekoak izan daitezke Administrazioa euskaraz gaitzeko bidean. Zerbitzu hauek ez dauden tokietan, Euskarabideak bete dezake paper hori.

Hainbat zerbitzu publikoetan euskaraz artatzeko beste bide bat dago: zenbat langile dira euskaraz egiteko gai, baina bere lanpostuan inork ez die eskatzen? Administrazioak esploratu beharko luke (barneko inkestak, ikerketak...) zein den langile euskaldun hauen kopurua, aukera asko irekiko lirartekeelako.

Hizkuntza paisaian, errealean zein birtualan (Internet), euskararen presentzia bermatu behar da, eta euskal sortzaile eta kulturaren kontsumitzaileen arteko zubiak sendotu behar dira. Hori ere bada Administrazioaren lanetako bat.

HEZKUNTZA

Unibertistatez kanpoko hezkuntzan 100.000 ikasle inguru dago Nafarroan. Hauen erdiak ez du batere harremanik euskararekin, G ereduari dagoelako.

Unibertsitatean euskara hutsean Magisteritza besterik ez dago. Beste ikasketetan badaude ikasgai batzuk euskaraz, baina oso eskaintza eskasa dago.

Kontserbatorioa, arte eskola...erdaraz bakarrik daude.

Euskara Nafarroa osoan ofiziala bihurtzen badugu, nafar ikasle guztiek euskara berea dela baloratu eta onartzeko beharrean egongo dira, beste erkidego elebidunetan bezala.

Gutxienez, euskararekin kontaktua izan beharko dute, hizkuntza ofiziala denaren logikan.

Beraz, gutxieneko euskararen ezagutza bermatu behar da. **Horretarako gaurko A ereduak (euskara ikasgai) izan behar du minimoen aukera Nafarroa osoan**, G ereduari desagertarazteko bidean ezarritik. Gauzak horrela, euskararen gutxieneko kontaktua eta ezagutza lortuko genuke ikasle guztientzat. Ez du batere logikarik atzerriko hizkuntzak derrigorrezkoak izatea eta hemengo hizkuntza bat, aldiz, ez.

Nafarroako bi hizkuntzetako batean (euskaraz ala gaztelaniaz) oinarritutako hezkuntza onartu behar dugu bakarrik; IIP-PAI bezalako programak bertan behera utzi beharko lirateke, atzerriko hizkuntzak ikasgai moduan indartuko direlarik.

LAN MUNDUAN

1. Bai sektoreetako hitzarmenetan (Administrazioa barne) eta bai enpresa mailako hitzarmen eta itunetan Euskara Planak edo klausulak sustatu. Helburu neurgarria da, eta sindikatuon ardura da, neurri handi batean.

Sindikatuaren presioa ezinbestekoa da lantokietan euskara sustatzeko. Horretarako diskurtsoa landu, neurriak proposatu eta ekintza eta klausula zehatzetan mamitu behar da. Hau da, **euskara klausulak edo planak ezin dira edukirik gabeko akordio bat izan**, marketing hutsa edo intentzio deklarazioa bat.

Proposatu ahal diren neurri zehatzak:

- a) **Kontrataziorako**, promoziorako eta barne antolakuntzarako **euskara baloratzea**.
- b) **Formakuntza** eta trebakuntza sustatu.
- c) **Enpresaren** komunikazioa eta paisaia linguistikoa **elebiduna**.

2. Kontratuen legean Administrazioaren esleipenetan enpresek euskara planak izatea baloratzea.

Kontratu publikoen lege berrian, esleipenetan enpresek euskara planak izatea baloratzen da. Aurrerapausoa bada ere, ez da nahikoa; **langile publikoei exijitzen zaizkien euskara gaitasun berdinak exijitzea administrazioak azpikontrataturiko zerbitzuetan**. Hau da, euskara bermatua zerbitzuaren arabera izatea eta ez kudeaketa publikoa edo azpikontrataturik den arabera, edo momentuko langileen arabera.

Enpresentan euskararen aldeko neurri eraginkorrak sustatzeko bidea jorratzen ari gara.

KOMUNIKAZIOA

Komunikabide publiko zein pribatu berriak sortu baino lehen, egun dauzkagunak probestu behar dira, bideragarritasun ekonomikoa eta bertako langileen baldintzak ahalik eta duinen izateko asmoarekin.

Nafarroako Administrazioen sustapena derrigorrezkoa da, behintzat euskarazko informazioa denon eskura dagoela ziurtatzeko (gaztelaniaz dagoen moduan).

Telebista: Nafarroa osoan ikusteko eskubidea bermatu behar da (euskaraz dauden ETBko kanal guztiak barne). Euskadi Irratiarekin bide berbera jorratu daiteke.

Irratiak: Administrazio publikoak irrati txiki hauen funtzionamendua sustatu behar du, eta ez bakarrik dirulaguntzaren bidetik. Lizentziak banatzerakoan kuotak jarri behar dira, eta publizitate instituzionalaren banaketa arautu behar da euskarazko komunikabideen biziraupena ziurtatzeko, besteak beste.

Egunkariak eta webguneak: Euskararen erabilera sustatu beharko da, publizitate instituzionalaren banaketaren bidez, adibidez (argitalpen elebidunetan ere, euskara erabiltzeko beharra ezarriz, neurri batean).

2018 Ekaina